

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala**40. zenbakia****Data 2009-03-02****6769 orria****3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK**

GFA-OGASUNA ETA FINANTZAK

Otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua, zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

Otsailaren 16ko 113/2009 FORU AGINDUA, zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoak indarrean duen Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 33. artikuluan ezartzen duenez, Zerga Bereziak itundutako tributuak dira, Estatuak une bakoitzean ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberei jarraituta erregulatuko direnak. Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, aitorten eta ordainketa ereduak onartzeko ahalmena izango dute, eta likidazio aldi bakoitza ordaintzeko epeak ere zehaztu ahal izango dituzte. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan beharko dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuako Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Ahalmen horren babesean, martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretua onartu zen, Gipuzkoako zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean xedatutakora egokitzen duena. Xedapen horretan sarritan aipatzen da ereduak onartu beharko direla formaltasun jakin batzuk betetzea ahalbidetuko duten aitorten edo komunikazioak egiteko, eta xedapenean bertan araututa dauden zergak ordaintzeko.

20/1998 Foru Dekretua onartu zenetik, eta obligazio horiek betetzea ahalbidetzeko, foru aginduak argitaratu dira autolikidazio, aitorten edo komunikazio ereduekin lotuta, eta horietan guztietan arlo honetako araudia oso sakabanatua egotea izan da ezaugarri komuna.

Aipatu diren obligazioak betetzea errazteko, foru agindu honen xedea da Zerga Berezien alorrean onartuta dauden eredu gehienak xedapen bakarrean onartzea eta, bidez batez, eredu horiek guztiak eguneratzea eta azken urteotako eskarmentuak organo kudeatzaileen jardunerako ekarri duen hobekuntzara egokitzea.

Azkenik, ezin da aipatu gabe utzi baliabide telematikoek ere garrantzi handia izan dutela esparru honetan, zerga obligazio formalak betetzeko. Beste zerga batzuetan gertatzen den bezala, zerga berezien eremuan aitorten edo komunikazioen transmisio telematikoa sartu ahal izateak beharrezko egiten du, baita ere, exijitzen diren ereduak aurkezteko prozeduretako batzuk aldatzea, haien konplimendua errazte aldera.

Gauzak horrela, honako hau

XEDATU DUT

1. artikulua. Fabrikazio zerga berezien likidazioa eta ordainketa.

1. Onarturik geratzen dira fabrikazio zerga berezien zerga zorra zehaztu eta ordaintzeko erabiliko diren ondoko autolikidazio ereduak, bina ale dituztenak, Administrazioarena eta interesatuarena:

- a) 560 ereduak: Elektrizitatearen gaineko zerga. Autolikidazioa. I. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- b) 561 ereduak: Garagardoaren gaineko zerga. Autolikidazioa. II. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- c) 562 ereduak: Tarteko produktuen gaineko zerga. Autolikidazioa. III. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- d) 563 ereduak: Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga. Autolikidazioa. IV. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- e) 564 ereduak: Hidrokarburoen gaineko Zerga. Autolikidazioa. V. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- f) 566 ereduak: Tabako laboreen gaineko zerga. Autolikidazioa. VI. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- g) KUBA ereduak. Alkoholaren eta edari deribatuen, tabako laboreen eta Elektrizitatearen gaineko zerga bereziak. Kuota bateratuak banakatzeko aitortpena. VII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- h) KBBA ereduak. Hidrokarburoen gaineko Zerga. Kuota bateratuak banakatzeko aitortpena. VIII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

Fabrikazio zerga berezien subjektu pasiboek aurkeztu behar dituzte eredu horiek, bi kasutan izan ezik: Inportazioak egiten dituztenean eta martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga bereziei buruzko abenduaren 28ko 39/1992 Legean xedatutakora egokitzen duenak (20/1998 Foru Dekretua aurrerantzean) 20.6 artikuluan definitutako artisau destilatzaileak direnean.

Oro har, fabrikazio zerga bereziei atxikitako produktuak jasotzen dituen establezimendu edo harrera leku bakoitzak aurkeztu behar ditu eredu horiek, eta aldi berean kuota likidoak ere ordaindu, likidatzen den epealdian egindako eragiketengatik.

Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuak aurrez baimendu badie, enpresek jardueren aitorten-likidazio bakarra aurkeztu dezakete, zerga bakoitzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Kuota bateratuak banakatzeko aitortpenak –KUBA eta KBBA ereduak– zerga bakoitza ordaintzeko ezarrita dauden epeen barruan aurkeztu behar dira Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan. Eredu horiekin batera, aitorten-likidazio bateratuaren kopia bat eta egindako eragiketen

aitorpenak ere aurkeztuko dira, banakatu beharreko kuoten fabrikazio zerga berezia zein den adierazita.

Likidatzen den epealdian fabrikazio zerga bereziei atxikitako produktuen izakinik edo mugimendurik izan ez bada, ez da beharrezkoa izango autolikidaziorik aurkeztea.

Fabrikazio zerga berezien subjektu pasiboak batasunaren gainerako lurralde eremutik iritsitako produktua jaso edo emateagatik bakarrik baldin badira zergaren subjektu pasibo, produkturik jaso edo eman ez duten likidazio aldietan ez dute autolikidaziorik aurkeztu beharko.

Likidazio aldi batean fabrikazio zerga berezien karga tasa desberdinak aplikatu direnean, karga tasak aplikatu diren epealdi bakoitzeko aurkeztu behar da autolikidazioa eta bakoitzagatik bidezko kuotak ordaindu.

2. Ereduak paperean nahiz bide telematikoz aurkez daitezke.

3. Autolikidazioak bide telematikoz aurkezteko, honako baldintzak bete behar dira:

a) Aitortzaileak nahitaezkoa du sinadura elektronikoko balioztatua eta pasahitz operatiboa eskuratzea Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko harremanetan zerbitzu telematikoak erabiltzeko, betiere irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretuak, Foru Administrazioarekin egitekoak diren jarduketetan identitatea eta ordezkaritza nola frogatu arautzen duenak, 3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Formularioaren datuak bete eta transmititu behar dira, foru agindu honetan onartzen diren eta Ogasun eta Finantza Departamentuaren www.gipuzkoa.net/ogasuna web helbidean eskura izango diren ereduak jarraituta, eta transmititu nahi den aitortpena hautatu. Aitorpen horretan honako datuok adierazi behar dira:

1. a. IFZ: 9 karaktere.

2. a. Zerga ekitaldia: Aitortzen den zergaldiko urtearen azken bi zifrak.

3. Zergaldia: 2 karaktere (hilabetea adierazteko bi zenbaki jarri behar dira, eta hiruhileko aitortpenen kasuan, zenbakia eta jarraian T hizkia).

c) Ondoren, aitortpena transmititu behar da ziurtagiria edo pasahitz operatiboa aukeratzean sorturiko sinadura elektronikoa erabiliz.

d) Aurkezleak aitortpenak hirugarren pertsonen izenean aurkezteko baimena jaso duen pertsona edo entitatea bada, sinadura bakarra beharko da, bere ziurtagiriari edo pasahitz operatiboari dagokiona.

e) Aitortpena onartzen bada, Ogasun eta Finantza Departamentuak balioztatuta bueltatuko du pantailan aitortpena, kode elektronikoa bidez baliatuta, zein egunetan aurkeztu den ere adierazita.

Aitortpena errefusatzeko bada, aurkitutako akatsak azalduko dira pantailan. Kasu horretan, akatsak zuzendu beharko dira eta autolikidazioa berriro aurkeztu.

4. Establezimendu edo harrera leku bakoitzak honako likidazio aldiak eta honako epeak izango ditu autolikidazioak aurkeztu eta, hala bada, horrekin batera dagozkien kuotak ordaintzeko:

a) Hidrokarburoen eta tabako laboreen gaineko zergak.

Likidazio aldia: Hilabete natural bat.

Epea: Sortzapenak gertatu diren hilabetea amaitu ondorengo lehen hogeita bost egun naturalak.

b) Alkoholen eta edari alkoholduen gaineko zerga.

Likidazio aldia: Hiruhileko natural bat, non eta subjektu pasiboek, dela eragiketa kopuruaren arabera aitortzen dutelako, dela zergaren araudiak aurreikusten dituen bestelako zirkunstantziak gertatzen direlako, ez duten Balio Erantsiaren gaineko Zerga hilean likidatzen. Horrelakoetan, hilekoa ere izango da zerga horien likidazio aldia.

Epea: Likidazio aldia hiruhilekoa bada, sortzapenak gertatu diren hiruhilabetea amaitu ondorengo bigarren hilabetearen lehen hogeita bost egun naturalak. Likidazio aldia hilekoa bada, sortzapenak gertatu diren hiruhilabetea amaitu ondorengo hirugarren hilabetearen lehen hogeita bost egun naturalak.

c) Elektrizitatearen gaineko zerga.

Likidazio aldia: Hiruhileko natural bat, non eta subjektu pasiboek, dela eragiketa kopuruaren arabera aitortzen dutelako, dela zergaren araudiak aurreikusten dituen bestelako zirkunstantziak gertatzen direlako, ez duten Balio Erantsiaren gaineko Zerga hilean likidatzen. Horrelakoetan, hilekoa ere izango da zerga horren likidazio aldia.

Epea: Sortzapenak gertatu diren hilabetea edo hiruhilabetea –likidazio aldia zein den– amaitu ondorengo lehen hogeita bost egun naturalak.

Elektrizitatearen gaineko zergaren subjektu pasiboa ez bada fabrika edo gordailu fiskal baten titularrak, kuotak ordaintzeko autolikidazio bakarra aurkeztuko da likidazio aldi bakoitzeko.

Autolikidazioetatik ateratzen den kuota likidoa zero bada, Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztu ahal izango dira autolikidazioak.

5. Autolikidazioak paperean aurkezten badira, ateratzen den kuota ordaintzeko Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartuak, bilketan laguntzeko baimendutako entitateetara joan beharko da.

6. Bide telematikoz aurkezten diren autolikidazioak helbideratze bankarioz ordainduko dira autolikidazioetan horretarako adierazitako kontuan.

7. Bide telematikoz aurkeztutako autolikidazioak bide telematikoz bakarrik aldatu, zuzendu edo deuseztatu ahal izango dira, betiere aurreko 3. apartatuan aipatu den epea amaitu aurretik aurkeztu badira.

2. artikulua. Eragiketen aitortpenak aurkeztea.

1. Autolikidazioak osatze aldera, eta aurreko artikuluko 4. apartatuan diru sarrera egiteko aipatu den epearen barruan, subjektu pasiboak behartuta daude egindako eragiketak jasotzen dituzten aitortpenak paperean aurkeztera, baita izakinak bakarrik daudenean ere, foru agindu honetan onartzen diren ereduak jarraituta.

Aurrekoa hala izanik ere, ardoaren eta edari hartzituen gaineko zergan aplikatzen den zerga tasa zero den bitartean, zergari atxikitako produktuak fabrikatzen dituztenek eta produktu horien gordailu fiskalen titularrek urtarril, apiril, uztail eta urriaren lehen hogeita bost egunen barruan aurkeztu behar dute, bulego kudeatzailean, eragiketen aitorpena, eta bertan aurreko hiruhileko naturalean establezimenduan izandako mugimenduak adierazi.

2. Jarraian onartzen dira eragiketarako aitorzeko erabiliko diren ereduak, bina ale izango dituztenak, Administrazioarena eta interesatuarena:

- a) 510 ereduak: Fabrikazio zerga bereziak. Europar Batasuneko beste estatuetatik jasotako eragiketen aitorpena. IX. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
 - b) 553 ereduak. Ardoaren eta edari hartzituen gaineko zerga. Ardo eta edari hartzituen fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitorpena. X. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
 - c) 554 ereduak. Alkoholen eta edari deribatuen gaineko zerga. Alkohol fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitorpena. XI. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
 - d) 555 ereduak. Tarteko produktuen gaineko zerga. Tarteko produktuen fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitorpena. XII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
 - e) 557 ereduak. Alkoholen eta edari deribatuen gaineko zerga. Edari deribatuen fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitorpena. XIII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
 - f) 558 ereduak. Garagardoaren gaineko zerga. Garagardo fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitorpena. XIV. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
 - g) 570 ereduak. Hidrokarburoen gaineko zerga. Hidrokarburoen fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitorpena. XV. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
 - h) 580 ereduak. Tabako laboreen gaineko zerga. Tabako laboreen fabriketan eta gordailu fiskaletan egindako eragiketen aitorpena. XVI. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
3. Eragiketen 510 aitorpen ereduak operadore erregistratuak, erregistratu gabeak, igorpen bermatuen hartzaile baimenduek eta ordezkari fiskalek baino ez dute aurkeztu behar, eta bertan Europar Batasuneko beste estatu batzuetatik iritsitako produktuen harrerak eta emateak bakarrik adieraziko dira.

4. Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan aurkeztu behar dira artikuluko 2. apartatuan aipatu diren eredu guztiak.

3. artikulua. Fabrikazio zerga berezien itzulketa eskaerak.

1. Zerga berezien erregelamenduak 7.1, 8.5, 9.4, 10.4, 54.5, 57.4, 80.d), 109.4, eta 111.5 artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ereduak onartu dira, fabrikazio zerga berezietan ordaindutako kuoten itzulketa eskatzeko erabiltzekoak:

- a) 506 ereduak. Fabrikazio zerga bereziak. Produktuak gordailu fiskalean sartzeari itzultzeko eskaera. XVII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- b) 507 ereduak. Fabrikazio zerga bereziak. Igorpen bermatuen sisteman itzultzeko eskaera. XVIII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- c) 508 ereduak. Fabrikazio zerga bereziak. Urrutiko salmenten sisteman itzultzeko eskaera. XIX. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- d) 524 ereduak. Alkoholen eta edari alkoholdunen gaineko zerga bereziak. Itzulketa eskaera. XX. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- f) 572 ereduak. Hidrokarburoen gaineko zerga. Itzulketa eskaera. XXI. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- g) 590 ereduak. Fabrikazio zerga bereziak. Produktuak esportatu edo igorri ondorengo itzulketa eskaera. XXII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

Aipatutako ereduak bina ale izango dituzte: Administrazioaren alea eta interesatuarena. 590 ereduak badu hirugarren ale bat, Esportazio/Bidalketa Aduanarena hain zuzen.

2. Ondoko kasu eta epeetan aurkeztu behar dira itzulketa eskaerak:

- a) 506 ereduak zerga berezien erregelamenduak 8. artikuluan jasotzen dituen kasuetan aurkeztu behar da. Eskaera aurkezteko epea hogeita bost egunekoa da, gordailu fiskalera sartutako produktuak beste estatu kide batean helmugara iritsi diren hiruhilekoa amaitzen denetik aurrera.
- b) 507 ereduak zerga berezien erregelamenduak 9. artikuluan jasotzen dituen kasuetan aurkeztu behar da. Eskaera aurkezteko epea hogeita bost egunekoa izango da, igorpen bermatuen sisteman bidalitako produktuen zerga berezia helmugako estatu kidean ordaindu edo kontabilitate kargua egin den hiruhilekoa amaitzen denetik aurrera.
- c) 508 ereduak zerga berezien erregelamenduak 10. artikuluan jasotzen dituen kasuetan aurkeztu behar da. Eskaera aurkezteko epea hogeita bost egunekoa izango da, urrutiko salmenten sisteman bidalitako produktuen zerga berezia helmugako estatu kidean ordaindu edo kontabilitate kargua egin den hiruhilekoa amaitzen denetik aurrera.
- d) 524 ereduak zerga berezien erregelamenduak 54. eta 80. artikuluetan aipatzen dituen kasuetan aurkeztu behar da. Alkoholari edo edari alkoholdunei 20/1008 Foru Dekretuaren 22.a) eta b) artikuluan eta 43. artikuluan aurreikusitako erabilerak eman zaizkien unetik aurrera eskaera aurkeztu ahal izango da.
- e) 572 ereduak zerga berezien erregelamenduak, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 109. eta 111. artikuluetan aipatzen dituen kasuetan aurkeztu behar da. Hidrokarburoen gaineko zergari atxikitako produktuei 20/1008 Foru Dekretuaren 52.a) eta c) artikuluan aurreikusitako erabilerak eman zaizkien unetik aurrera eskaera aurkeztu ahal izango da.
- f) 590 ereduak zerga berezien erregelamenduak 7. eta 57.4 artikuluetan aipatzen dituen kasuetan aurkeztu behar da. Merkantziak esportatzeko tramitearen aduanako agiriarekin batera aurkeztu behar da itzulketa eskaera.

3. Fabrikazio zerga berezien itzulketa eskaerak, artikuluko honetan onartzen diren ereduaren arabera, paperean aurkeztu behar dira artikuluko 2. apartatuan

aipatutako epeen barruan, Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan.

4. artikulua. Marka fiskalak.

Zerga berezien erregelamenduak 26.6 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, onarturik geratu da paperezko euskarrian 517 eredu, «Fabrikazio zerga bereziak. Marka fiskalen eskaera» izeneko. XXIII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan. Bi ale ditu ereduak, Administrazioarena eta interesatuarena.

Ez da inolako eperik ezartzen 517 eredu paperean aurkezteko, eta Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan aurkeztu beharko da beti.

5. artikulua. Europar Batasunaren gainerako lurralde eremutik fabrikazio zerga bereziei atxikitako produktuak jasotzeko baimena eskatu eta ematea.

1. Honako ereduak onartu dira zerga berezien erregelamenduak 33.2 artikulua a) eta b) letretan xedatutakoaren ondorioetarako:

a) 504 eredu. Fabrikazio zerga bereziak. Europar Batasunaren gainerako lurralde eremutik produktuak jasotzeko baimen eskaera. XXIV. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

b) 505 eredu. Fabrikazio zerga bereziak. Europar Batasunaren gainerako lurralde eremutik produktuak jasotzeko baimena. XXV. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

2. Fabrikazio zerga bereziei atxikitako produktuak Europar Batasunaren gainerako lurralde eremutik jasotzeko, interesatuek baimena eskatu behar dute.

3. 504 ereduari dagokion eskaerak bi ale ditu, Administrazioarena eta interesatuarena, eta paperezko euskarrian aurkeztu behar da Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan. Behin dokumentua bisaturik, aipatutako Zerbitzuak dagokion alea itzuliko dio interesatuari.

4. 505 ereduak, produktuak jasotzeko baimenari dagokionak, hiru ale ditu, Administrazioarena, interesatuarena, eta beste estatu kide bateko hornitzailearena. Baimena Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuak emango du, paperezko euskarrian, eta interesatuak bi ale jasoko ditu, berari zuzendutakoa eta beste estatu kideko hornitzaileari dagokiona.

6. artikulua. Zirkulazioan izandako gorabeheren orria.

1. Zerga berezien erregelamenduak 16.A).4, 17.2, 29.3 eta 38.4 artikuluetan jasotakoaren ondorioetarako, onarturik geratzen da 509 eredu, «Fabrikazio zerga bereziak. Gorabeheren orria» deiturikoa. XXVI. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

2. Honako kasu eta epeetan aurkeztu behar da 509 eredu:

a) Zerga berezien erregelamenduak 16.A).4 artikuluan aurreikusitako kasuari gagozkiolarik, etendura erregimenean izandako barne zirkulazio batean fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuetan galerak gertatzen direnean, baldin eta galera horiek arazuko portzentajeak aplikatuta ateratzen direnak baino handiagoak badira eta hartzaileak formalizatutako jasotze agiria ikusi ondoren jartzen badira agerian. Irteera lekua Gipuzkoan kokatutako establezimendu bat denean, gorabehera orria Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan aurkeztuko da, eta horretarako epea hamabost egun baliodunekoa izango da, agiri laguntzailearen 3. alea jasotzen denetik aurrera kontatuta.

b) Zerga berezien erregelamenduak 16.A).4 artikuluan aurreikusitako kasu berberari gagozkiolarik, produktuen barne zirkulazio bat etendura erregimenean izan ondoren, igorleak, produktuak igorri eta hiru hilabeteko epean, agiri laguntzailearen 3. alea jaso ez duenean. Establezimendu igorleari dagokion bulego kudeatzailean aurkeztu behar da gorabehera orria, esandako hiru hilabeteko epea amaitu ondorengo hamabost egun baliodunen barruan.

c) Zerga berezien erregelamenduak 17.2 artikuluan aurreikusitako kasuari gagozkiolarik, barruko lurralde eremutik horren barruan ez dagoen Batasuneko beste lurralde eremu batera etendura erregimenean igorritako produktuak helmugara iristen ez direnean eta zirkunstantzia hori agiri laguntzailearen 3. alean jasota geratzen denean. Irteera lekua Gipuzkoan kokatutako establezimendua denean, gorabehera orria Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan aurkeztuko da, eta horretarako epea hamabost egun baliodunekoa izango da, agiri laguntzailearen 3. alea jasotzen denetik aurrera kontatuta, eta, nolana ere, produktuak igortzen direnetik hiru hilabete igaro aurretik.

d) Zerga berezien erregelamenduak 17.2 artikuluan aurreikusitako kasu berberari gagozkiolarik, barruko lurralde eremutik horren barruan ez dagoen Batasuneko beste lurralde eremu batera etendura erregimenean igorritako produktuak helmugara iristen ez direnean eta igorleak agiri laguntzailearen 3. alea jasotzen ez duenean. Irteera lekua Gipuzkoan kokatutako establezimendua denean, gorabehera orria Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan aurkeztuko da, eta horretarako epea hamabost egun baliodunekoa izango da, produktuak igorri eta hiru hilabeteko epea amaitzen denetik aurrera.

e) Fabrikatik edo gordailu fiskaletik irteerako produktuak, etendura erregimena amaituta baina agiri laguntzaileak babestuta irteerakoak, hartzaileari erabat edo zati batean eman ezin izan zaizkionean zerga berezien erregelamenduak 38.1 artikuluan aipatzen duen kasuan, eta berriz ere irteerako establezimenduan sartzen direnean. Produktuak igortzen dituen establezimenduan berriro sartzen direnean formalizatu behar da gorabehera orria. Irteerako establezimendua Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan inskribatuta badago, establezimendua titularrak gorabehera orriaren ale bat bidali behar dio zerbitzu horri.

f) Fabrikatik edo gordailu fiskaletik irteerako produktuak, etendura erregimena amaituta baina agiri laguntzaileak babestuta irteerakoak, hainbat hartzaileari zuzendutakoak izanik, hartzaileei eman beharreko kantitateak aldatzen direnean, zerga berezien erregelamenduak 38.1 artikulua 3. paragrafoan jasotakoaren arabera. Hartzaileei emandako produktuen kantitatea aldatu izana erakusten duen agiri laguntzaile bakoitzeko, igorleak gorabehera orri bana formalizatu behar du aldaketa horiek egin ondorengo hogeita lau orduen barruan. Irteerako establezimendua Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan inskribatuta badago, establezimendu igorlearen titularrak gorabehera orri bakoitzaren ale bana bidali behar dio zerbitzu horri.

g) Zerga tasa murriztua aplikatua duten eta agiri laguntzaile batek babesten dituen produktuen barruko zirkulazio batean hartzaile eta, hala badagokio, helmugako lekua, aldatzen direnean, zerga berezien erregelamenduak 38.2b) artikuluan jasotakoaren arabera. Igorleak gorabehera orri bat bete beharko du aldaketa horiek egin ondorengo hogeita lau orduen barruan. Irteerako establezimendua Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan inskribatuta badago, establezimendu igorlearen

titularrak gorabehera orriaren ale bat bidali behar dio zerbitzu horri.

h) Etendura erregimenean dauden edo salbuespen kasuetako bat aplikatzen zaien produktuen barruko zirkulazio batean, agiri laguntzailean ageri den hartzailea aldatzen denean, zerga berezien erregelamenduak 38.2.c) artikuluan jasotakoaren arabera. Igorleak gorabehera orri bat bete beharko du aldaketa hori egin ondorengo hogeita lau orduen barruan. Irteerako establezimendua Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan inskribatuta badago, establezimendu igorlearen titularrak gorabehera orriaren ale bat bidali behar dio zerbitzu horri.

i) Barruko lurralde eremuan hasi eta etendura erregimenean egindako batasun barruko zirkulazio batean, hartzailea edo emateko lekua aldatzen denean, zerga berezien erregelamenduak 38.3 artikuluan jasotakoaren arabera. Igorleak gorabehera orri bat bete beharko du aldaketa hori egin ondorengo hogeita lau orduen barruan. Irteerako establezimendua Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan inskribatuta badago, bidalketa egin duen gordailuzain baimenduak gorabehera orriaren ale bat bidali behar dio zerbitzu horri.

3. Gorabehera orriak paperezko euskarrian aurkeztuko dira, artikuluko honetako 2. apartatuan adierazitako epeetan, honako prozedurari jarraituta:

Artikulu honen 2. apartatuko a), b), c), eta d) paragrafoetan aipatutako kasuetan, paragrafo horietan aipatzen den kudeaketa bulegoan aurkeztu behar dira gorabehera orriak. Behin bisatuta, bulegoak dagokion alea itzuliko dio interesatuari.

Artikulu honen 2. apartatuko e), f), g), h) eta i) paragrafoetan aipatutako kasuetan, interesatuek gorabehera orrien Administrazioarentzako alea bidali behar diote paragrafo horietan aipatzen den kudeaketa bulegoari.

7. artikulua. Estatu barruko nahiz batasunaren barruko zirkulazioan luzatutako agiri laguntzaileen zerrenda, batasunaren barruko zirkulazioan jasotako agiri laguntzaileen zerrenda, eta bideko salmenten prozeduran egindako emate orrien hileko zerrenda.

1. Zerga berezien erregelamenduak 29.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, onarturik geratzen da 551 eredua, «Fabrikazio Zerga Bereziak. Astean luzatutako agiri laguntzaileen zerrenda» izenekoak, astean luzatutako agiri laguntzaileen zerrenda, agiri erraztuena barne, adierazteko erabili beharrekoak. XXVII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

2. Zerga berezien erregelamenduak 32. artikuluan 3. eta 4. zenbakietan ezarritakoaren ondorioetarako, onarturik geratzen da 552 eredua, «Fabrikazio Zerga Bereziak. Batasunaren barruko trafikoa dela-eta astean jasotako agiri laguntzaileen zerrenda» izenekoak, astean jasotako agiri laguntzaileen zerrenda, agiri erraztuena barne, adierazteko erabili beharrekoak. XXVIII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

3. Onarturik geratzen da, paperezko euskarrian, 511 eredua, «Fabrikazio zerga bereziak. Tasa murriztuaz bideko salmenten prozeduran igorritako produktuen emate orrien hileko zerrenda» izenekoak. XXIX. eranskinean ageri da foru agindu honetan.

Bideko salmenten prozedura erabiliz fabrikatik, gordailu fiskaletatik edo biltegi fiskaletatik produktuak igortzen dituztenek aurkeztu behar dute 511 eredua, betiere zerga horretan tasa murriztua aplikatu badute. Aurkezteko epea bost egun baliodunekoak da, informazioari dagokion hilabetea amaitzen denetik aurrera. Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan aurkeztu behar da eredua.

4. Paperezko euskarria, euskarri magnetikoa edo bide telematikoa erabilita aurkez daitezke aurreko apartatueta aipatu diren zerrendak, baina bakar-bakarrik delako epealdian agiri laguntzaileak luzatu edo jaso direnean aurkeztu behar dira.

5. Aurkezpena paperezko euskarrian egitea aukeratzen bada, ereduak bi ale dituzte, Administrazioarena eta interesatuarena. Irteerako establezimendua Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuko erregistroan inskribatuta badago (551 ereduaren kasua), edo produktuak jasotzeko lekua Gipuzkoan badago (552 ereduaren kasua), zerrendak zerbitzu horretan aurkeztu behar dira, datuak hartu diren dataren hurrengo astearren barruan. Behin dokumentua bisaturik, Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuak dagokion alea itzuliko dio interesatuari.

6. 500/503/emate orriak (hilean luzatutako agiri laguntzaileen zerrenda. Batasunaren barruko zirkulazioan jasotako agiri laguntzaileak. Emate orriak. Hoditeria finkoen bidezko igorpena) dokumentuen euskarri magnetikoa aurkezteko, kontuan izan behar dira UN/EDIFACT/CUSDEC/CUSRES/I-E500 mezuan jasotako zehaztapen teknikoak, 1998ko uztailean 16ko Aginduak, fabrikazio zerga berezien kudeaketan erabilitako aitortpen eta dokumentuen transmisio elektronikoen sistema finkatzen duenak, jasotakoaren arabera. Honako datuok jaso behar ditu euskarri magnetikoak: Luzatutako agiri laguntzaileenak, batasunaren barruko joan-etorrian jasotako agiri laguntzaileenak, bi kasuetan agiri erraztuak barne, eta zerga berezien erregelamenduko 27.3, 29.1 eta 32.4 artikuluetan aipatzen den bideko salmenten prozeduran luzatutako emate orrienak.

Euskarri magnetikoak aurkeztean, «500/ 503/Emate orriak agiriaren euskarri magnetikoa eman izanaren frogagiria» ere aurkeztuko da, hain zuzen ere, foru agindu honetan onartu eta XXX. eranskin gisa ageri dena.

Frogagiriak 2 bi ale ditu:

— Administrazioaren alea.

— Subjektu pasiboaren alea.

7. Aurreko 6. apartatuan aipatu diren euskarri magnetikoak eta euskarri horiek eman izanaren frogagiriak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztu behar dira.

Zerbitzuak entregaren frogagiriaren subjektu pasiboarentzako alea itzuli behar dio euskarriaren aurkezleari, behin-behinek jaso izana frogatzen duen dilijentziarekin batera, euskarria gero prozesatu eta egiaztatzeak izan ditzakeen ondorioen kalterik gabe. Gerta daitezkeen gorabeherak aurkezleari jakinaraziko dizkio zerbitzuak.

Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak baimendu dezake titular batek dituen establezimenduen datuak euskarri bakarrean aurkeztea, betiere Gipuzkoan kokatuta badaude.

500/503/Emate orriak dokumentuen euskarri magnetikoa eta harekin batera joan behar duen entregaren frogagiria bost egun balioduneko epean aurkeztu behar dira, informazioari dagokion hilabetea amaitzen denetik aurrera.

8. 551, 552 eta 551 ereduak bide telematikoz aurkeztea aukeratzen bada, internet bidez aurkeztuko dira aurreko apartatuan aipatutako epeetan.

Aurkezpen modu hau egiteko datuen transmisio elektronikoa erabiltzen bada, ezinbestekoa izango da 1998ko uztailaren 16ko Aginduan eta berau garatzen duten xedapenetan araututa dauden zehaztapen teknikoak, baldintzak, eta abar kontuan izatea. Foru agindu horrek fabrikazio zerga berezien kudeaketan erabilitako aitorten eta dokumentuen transmisio elektronikoa sistema finkatu zuen.

8. artikulua. Hidrokarburoen gaineko zergaren bigarren tarifako produktu bihurtterazak jasotzen dituztenen urteko zerrenda.

1. Zerga berezien erregelamenduak 116bis.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, onartu egiten da 512 eredu, «Hidrokarburoen gaineko Zerga. Bigarren tarifako produktuak jaso dituztenen urteko zerrenda» deiturikoa, foru agindu honetan XXXI. eranskin gisa ageri dena. Fabrika, gordailu fiskal eta biltegi fiskalen titularrek aurkeztu behar dute eredu hau, betiere aurreko urtean hidrokarburoen gaineko zergaren bigarren tarifako produktu bihurtterazak 50.000 litroko edo hortik gorako kantitatean bidali badizkiote hartzailearen bati 20/1998 Foru Dekretuaren 51.1 artikuluan jasotako salbuespena aplikatuta. Hartzaileen datuak eta haietako bakoitzari bidalitako produktu kantitatea adierazi behar dira zerrenda horretan.

2. Urteko zerrenda establezimendu igorle bakoitzak bete behar du, eta bakar-bakarrik aurreko urtean produktuak 50.000 litroko edo hortik gorako kantitatean jaso dituzten hartzaileak daudenean aurkeztu edo igorri behar dute.

3. Paperezko euskarrian aurkeztu behar da urteko zerrenda, Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan, hurrengo urteko lehen hiruhilekoaren barruan. Bi ale aurkeztuko dira, kopia bat Administrazioarentzat eta bestea interesatuarentzat. Interesatuaren kopia bisatua izan ondoren, aurkezleari itzuliko zaio.

9. artikulua. Aurretiazko alerta sistema fabrikazio zerga bereziei lotutako hainbat produkturen batasun barruko zirkulazioan.

1. Foru agindu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako definizioak finkatzen dira aurretiazko alerta sistemari eta aurretiazko komunikazio sistemari dagokienez:

a) «Aurretiazko alerta»: Europar Batasuneko aduana lurraldeko helmugako edo irteerako estatura produktuak zerga berezien etendura erregimenean igorri direla informatzeko balio duen tresna, batasunaren barruko lankidetzarako erabilia.

b) «Alkohol etilikoa»: NC 2207 kodean sailkatutako alkohol etiliko edo etanola, eta NC 2208.90.91 eta 2208.90.99 kodeetan sailkatutako alkohol etiliko edo etanola, desnaturalizatu gabekoa.

c) «Edari deribatua»: Pattarrak, likoreak eta gainerako edari espirituak, NC 2208 kodean sailkatuak.

d) «Zigarretak»: NC 2402.20 kodean sailkatutako tabako laboreak.

2. Aurretiazko alerta sistema Batasuneko beste estatu batera zerga berezien etendura erregimenean egiten diren igorpenei aplikatuko zaie, ondorengo produktuak direnean eta gutxienez jarraian aipatzen diren kantitatean bidaltzen direnean:

a) Aurreko apartatuko b) letran definitutako produktuen kasuan, kantitate mugarik gabe.

b) 12 hektolitro edari deribatu.

c) 500.000 zigarreta.

3. artikulua honen bigarren apartatuan zerrendatutako produktuak Batasunaren gainerako lurralde eremura etendura erregimenean igortzen dituzten pertsonak agiri laguntzailearen kopia bidali behar diote Zerga Administrazioari, zirkulazioa hasi baino bi ordu lehenago gutxienez.

Batasunaren barruko zirkulazioa, etendura erregimenean egindakoa, babestu behar duen agiri laguntzailearen datuak internet bidez transmititu behar zaizkio Zerga Administrazioari, lehen aipatutako epean.

4. Zerga berezien erregelamenduak, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 29.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Zerga Administrazioari aurretiazko alerta sisteman aitortutako agiri laguntzaileak ez dira zertan berriro aitortu behar.

10. artikulua. Aurretiazko komunikazioa fabrikazio zerga bereziei lotutako hainbat produkturen zirkulazioan.

1. Jarraian aipatzen diren kasuak gertatzeagatik agiri laguntzailea luzatu beharra dagoenean, produktuak igortzen dituenak kopia bat bidali behar dio Zerga Administrazioari:

a) Alkohol etilikoaren barne zirkulazioa, dela etendura erregimenean dela salbuespen bat aplikatuta.

b) Edari deribatuen barne zirkulazioa (12 hektolitro edo gehiago), etendura erregimenean.

c) Zigarreten barne zirkulazioa (500.000 unitate edo gehiago), etendura erregimenean.

d) Hidrokarburoen barne zirkulazioa zein batasunaren barrukoa, etendura erregimenean.

2. Agiri laguntzailearen datuak internet bidez transmititu behar zaizkio Zerga Administrazioari, zirkulazioa hasi aurretik.

3. Zerga berezien erregelamenduak, uztailaren 7ko 1.165/1995 Errege Dekretuaren bidez onartuak, 29.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Zerga Administrazioari aurretiazko komunikazio sisteman aitortutako agiri laguntzaileak ez dira zertan berriro aitortu behar.

11. artikulua. Fabrikazio zerga berezien kudeaketan erabiltzen diren bestelako aitorten eta agiriak aurkeztea.

1. Zerga berezien erregelamenduak alkoholaren fabrikazioari dagokionez 82. eta 83. artikuluetan ezarritako informazio obligazioak bete ahal izan daitezzen, honako

ereduak onartu dira:

- a) 518 ereduak –Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga. Lan aitorpena–. XXXII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- b) 519 ereduak –Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga. Lan jardunaren gorabehera orria–. XXXIII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.
- c) 520 ereduak –Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga. Lan jardunaren emaitza orria–. XXXIV. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

Eredu horiek hiruna ale dituzte:

- Zeharkako Zergen Zerbitzuaren alea.
- Ikuskaritzako Zuzendariordetzaren alea.
- Fabrikatzailearen alea.

2. 518 ereduak Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzako Zuzendariordetzari aurkeztu behar zaio, bide hauetako bat dela medio:

- a) Zuzenean emanez, eragiketa hasi baino gutxienez hogeita lau ordu lehenago.

Aipatutako Zuzendariordetzak dokumentua onartu ondoren, fabrikatzaileari dagokion alea itzuli behar dio, eta beretzat beste ale bat gorde behar du, berari dagokiona hain zuzen. Hogeita lau orduko epean gehienez dagokion alea ere eman behar dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari.

- b) Posta ziurtatu bidez, eragiketa hasi baino gutxienez hirurogeita hamabi ordu lehenago.

Fabrikatzaileak posta ziurtatu bidez bidali behar ditu Ikuskaritzako Zuzendariordetzara eta Zeharkako Zergen Zerbitzura bakoitzari dagokion alea, eta bere alea eta gutun ziurtatuaren frogagiria beretzat gorde behar ditu. Ikuskaritzako Zuzendariordetzak hura jaso eta gehienez hogeita lau orduko epean bidali behar dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari honi dagokion alea. Fabrikara egindako lehen bisitaldiaren ondoren –eragiketak hasi aurretik egin daiteke bisitaldia, baina aitorpenaren inguruan egin beharreko egiaztapenak baztertu gabe–, Ikuskaritzako Zuzendariordetzak, ados egonez gero, fabrikatzailearen eta Zuzendariordetzaren aleak bideratuko ditu, eta gorabeheraren bat gertatu bada, dagokion alearen kopia bidaliko dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari.

- c) Telefaxe bidez, eragiketa hasi baino gutxienez hogeita lau ordu lehenago.

Aurkezpen sistema hau Ikuskaritzako Zuzendariordetzak aldeztu behar du establezimendu bakoitzerako.

Fabrikatzaileak fabrikatzailearen alea bidali behar dio telefaxe Ikuskaritzako Zuzendariordetzari, eta beretzat aitorpenaren gainerako aleak eta egindako transmisioaren frogagiria gorde. Ikuskaritzako Zuzendariordetzak, hura jaso eta gehienez hogeita lau orduko epean, bidaliko alearen fotokopia bat bidali behar dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari. Fabrikara egindako lehen bisitaldiaren ondoren –eragiketak hasi aurretik egin daiteke bisitaldia, baina aitorpenaren inguruan egin beharreko egiaztapenak baztertu gabe–, Ikuskaritzako Zuzendariordetzak, ados egonez gero, aitorpenaren ale guztiak bideratuko ditu, eta dagokion alea emango dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari.

3. 519 ereduak Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzako Zuzendariordetzari aurkeztu behar zaio, bide hauetako bat dela medio:

- a) Zuzenean emanez.

Aipatutako Zuzendariordetzak dokumentua onartu ondoren, fabrikatzaileari dagokion alea itzuli behar dio, eta beretzat beste ale bat gorde behar du, berari dagokiona hain zuzen. Hogeita lau orduko epean gehienez dagokion alea ere eman behar dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari.

- b) Telefaxe bidez.

Aurkezpen sistema hau Ikuskaritzako Zuzendariordetzak aldeztu behar du establezimendu bakoitzerako.

Fabrikatzaileak fabrikatzailearen alea bidali behar dio telefaxe Ikuskaritzako Zuzendariordetzari, eta beretzat gorabehera orriaren ale guztiak eta egindako transmisioaren frogagiria gorde. Ikuskaritzako Zuzendariordetzak, hura jaso eta gehienez hogeita lau orduko epean, bidaliko alearen fotokopia bat bidali behar dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari. Fabrikara egindako lehen bisitaldiaren ondoren, eta gorabehera orrian jasotako gertakizuna egiaztatzea eragotzi gabe, Ikuskaritzako Zuzendariordetzak, ados egonez gero, gorabehera orriaren ale guztiak bideratuko ditu, eta dagokion alea emango dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari.

4. 520 ereduak Ogasun eta Finantza Departamentuko Ikuskaritzako Zuzendariordetzari aurkeztu behar zaio, eragiketa amaitu eta gehienez ere hogeita lau orduko epean, bide hauetako bat dela medio:

- a) Zuzenean emanez.

Aipatutako Zuzendariordetzak dokumentua onartu ondoren, fabrikatzaileari dagokion alea itzuli behar dio, eta beretzat beste ale bat gorde behar du, berari dagokiona hain zuzen. Hogeita lau orduko epean gehienez dagokion alea ere eman behar dio Zeharkako Zergen Zerbitzuari. Enpresaren karpeta fiskalean behar bezala lotuta gordeko dira Ikuskaritzako Zuzendariordetzaren alea, lan aitorpena eta aitorpenarekin lotuta aurkezten diren gorabehera orriak, halakorik bada.

- b) Posta ziurtatu bidez bidalitz.

Fabrikatzaileak ale guztiak bidali behar dizkio posta ziurtatu bidez Ikuskaritzako Zuzendariordetzari, eta bere alearen kopia eta gutun ziurtatuaren frogagiria beretzat gorde behar ditu. Ikuskaritzako Zuzendariordetzak, dokumentua onartu ondoren, behar bezala bideratuta itzuli behar dio, dela posta ziurtatuaz, dela fabrikara egiten duen lehen bisitaldian, bere alea fabrikatzaileari. Enpresaren karpeta fiskalean behar bezala lotuta gordeko dira Ikuskaritzako Zuzendariordetzaren alea, fabrikatzailearen alea bidali izanaren frogagiria, bidalia izan bada, lan aitorpena eta aitorpen horrekin lotuta aurkeztu diren gorabeheren orriak, halakorik dagoenean. Zeharkako Zergen Zerbitzuaren alea gehienez ere hogeita lau orduko epean eman behar zaio zerbitzu horri.

5. Onarturik geratzen da Gipuzkoako Foru Aldundiko erregistroan inskribatu izana frogatzen duen txartela, foru agindu honetan XXXV. eranskin gisa ageri dena. Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan emango da txartela, eta hauek izango dira hartzaileak, betiere erregistroan inskribatu badira: Fabriken, gordailu fiskalen eta biltegi fiskalen titularrak, operadore erregistratuak produktuak jasotzen dituzten gordailu fiskalei dagokienez, zerga bereziren erregelamenduan finkatzen diren xehakako merkataria, erabiltzaile eta amaierako kontsumitzaileak, urrutiko salmentak egiten dituzten enpresariak, eta zerga ordezkariek.

6. Onarturik geratzen da «Alkohola hornitzeko txartela»ren ereduak, foru agindu honetan XXXVI. eranskin gisa ageri dena. Gipuzkoako Foru Aldundiak alkoholaren eta edari deribatuen zergen esparruan eratu duen Erregistroan inskribatu izana frogatzeko balioko du txartelak, eta Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuak emango du. Hauek izango dira hartzaileak, betiere erregistroan inskribatu badira: Fabriken, gordailu fiskalen eta biltegi fiskalen titularrak, operadore

erregistratuak produktuak jasotzen dituzten gordailu fiskalei dagokienez, zerga berezien erregelamenduan finkatzen diren xehekako merkatari, erabiltzaile eta amaierako kontsumitzaileak, urrutiko salmentak egiten dituzten enpresariak, eta zerga ordezkarriak.

12. artikulua. Alkoholaren desnaturalizagarriak.

1. 20/1998 Foru Dekretuaren 20. artikuluan eta zerga berezien erregelamenduko 73., 74., eta 75. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, alkoholaren desnaturalizagarritzat jotzen dira denatonio bentoatoa (bitrex), metiletilzetona (2-butanona), metileno-urdina (Index 52015 kolorea) eta dietil ftalatoa, betiere alkoholari jarraian adierazitako eran eta kantitateetan gehitzen bazaizkio.

2. Erabat desnaturalizatutako alkohola. Halakotzat hartzen da 100 litro alkohol purutan gutxienez ondoko sustantziak dituena:

- a) Gramo bat denatonio bentoato gehi,
- b) 2 litro metiletilzetona (2-butanona) eta
- c) 0,2 gramo metileno-urdin (Index 52015 kolorea).

3. Partzialki desnaturalizatutako alkohola, erabilera orokorrekoa. Halakotzat hartzen da 100 litro alkohol purutan gutxienez ondoko sustantziak dituena:

- a) Gramo bat denatonio bentoato, edo
- b) 0,3 litro dietil ftalato gehi 0,2 gramo denatonio bentoato, edo
- c) 1,25 litro metiletilzetona (2-butanona).

4. Alkohola erabat edo partzialki desnaturalizatuta dagoela jotzen da laginen analisisetatik ateratzen diren emaitzak, metodo akatsak barne, aurreko apartatuatan aipatutako balioen %95etik beherakoak ez direnean.

13. artikulua. Tasa murriztua aplikatzeko hidrokarburu jakin batzuek eraman behar dituzten trazatzaile eta markatzaileak onartzea.

1. Honako markatzaile eta trazatzaileak onartzen dira 20/1998 Foru Dekretuak 50.1 artikuluan 1.4 epigrafean gasoliorako ezartzen duen tasa murriztua aplikatzeko:

a) Gasolioak ondorengo gehigarri eta agente trazatzaileak eraman behar ditu 1.000.000 litroko:

a') Kantitate bat N-etil-N-[2-(1-isobutoxi)etil]-4-fenil azoanilina, sei kilo gutxienez eta bederatzi gehienez (CAS zenbakia: 34432-92-3).

b') Koloragarri gorria, gasolioari 0,40tik gorako absorbantzia eragingo diona isooktanoaren aurrean, 525 eta 550 nanometro bitartean neurtua, 10 milimetroko argi-pasoa duten kubetetan.

b) Gasolioak ondorengo gehigarri eta agente trazatzaileak eraman behar ditu 1.000.000 litroko:

a') Kantitate bat N-etil-N-[2-(1-isobutoxi)etil]-4-fenil azoanilina, sei kilo gutxienez eta bederatzi gehienez (CAS zenbakia: 34432-92-3).

b') Koloragarri urdina, gasolioari 0,50etik gorako absorbantzia eragingo diona isooktanoaren aurrean, 640 eta 660 nanometro bitartean neurtua, 10 milimetroko argi-pasoa duten kubetetan.»

c) 1. apartatuan aipatu diren gehigarri eta trazatzaileek B gasolioaren zehaztapen teknikoak osatuko dituzte, eta 2. apartatukoek, berriz, C gasolioarenak.

2. 20/1998 Foru Dekretuak 50.1 artikuluan 1. tarifako 1.12 epigrafean eta 2. tarifako 2.10 epigrafean, hurrenez hurren, ezarritako tasa murriztuak aplikatzeko, kerosenoak eta gainerako tarteko olioek honako gehigarri eta agente trazatzaileak eraman behar dituzte 1.000.000 litroko:

a) Kantitate bat N-etil-N-[2-(1-isobutoxi)etil]-4-fenil azoanilina, sei kilo gutxienez eta bederatzi gehienez (CAS zenbakia: 34432-92-3).

b) Koloragarri urdina, kerosenoari 0,50etik gorako absorbantzia eragingo diona isooktanoaren aurrean, 640 eta 660 nanometro bitartean neurtua, 10 milimetroko argi-pasoa duten kubetetan.

3. B eta C motatako gasolioek aurreko 1. apartatuan jasotakoaren arabera derrigorrez eraman behar dituzten gehigarri eta agente trazatzaileez gain, birfindegiak eta hidrokarburoen gordailu fiskalak baimendurik geratzen dira gasolina eta gasolioetan bestelako gehigarriak ere erabiltzeko baldintza hauek betetzen badira:

a) Gehigarri horiek jasotzen dituzten gasolina eta gasolioek indarrean dagoen araudian ezarritako zehaztapenak bete behar dituzte.

b) Gehigarri horiek erabiltzeak ez du ezertan ere aldatu behar B eta C motatako gasolioek aurreko 1. apartatuaren arabera eraman behar dituzten gehigarri eta agente trazatzaileen portaera edo horiek antzemateko era.

c) Gehigarri horiek erabiltzea ez da oztopo izango ingurumen alorrean indarrean dauden arauak betetzeko.

14. artikulua. Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga. Autolikidazioa eta horniketa salbuetsien zerrenda.

1. Bi eredu onartu dira: 569 eredu, «Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga. Autolikidazioa eta horniketa edo autokontsumo salbuetsien zerrenda» izenekoa, eta EBA eredu, «Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga. Subjektu pasiboak bere eragiketetan erabilitako establezimenduei dagozkien kuotak edo horniketa salbuetsiak establezimenduka banakatzeko aitorpena» deiturikoa. XXXVII. eta XXXVIII. eranskinetan jaso dira foru agindu honetan. Paperean nahiz telematikoki (internet bidez) aurkeztu daitezke.

2. Autolikidazioaren aurkezpen telematikoak 1. artikuluan 2. apartatutik 6.ra bitartean, biak barne, ezarritako baldintzak eta prozedurak bete behar ditu, honako berezitasunak ere aintzat hartuta:

a) «Kuota zentralizatuak banakatzeko aitorpenak» (KUBA eta KBBA ereduak) aipatzen direnean, aintzat hartzen ari da «Establezimenduen arabera banakatzeko aitorpena (EBA eredu), aurreko apartatuan onartu dena.

b) Aurkezteko epea: Sortzapenak gertatu diren hiruhilekoa amaitu ondorengo lehen hogeita bost egun naturalak.

Xedapen indargabetzailea.

1. Foru agindu hau indarrean jartzen denean honako xedapenak indargabetuko dira:

— 640/1997 Foru Agindua, abuztuaren 20koa, Fabrikazio Zerga Bereziak autolikidatzeko ereduak ezarri eta beren zenbatekoa kalkulatu eta ordaintzeko aurkezpen epeak, modua eta tokiak onartzen dituena.

— 750/1997 Foru Agindua, irailaren 30ekoa, eragiketak aitortzeko erabili beharreko 510, 553, 554, 557, 558, 570, 580 eta E-55 ereduak eta asteen zehar luzatu nahiz jasotako agiri laguntzaileak zerrendatzeko 501 eta 502 ereduak, horiek guztiak Fabrikazio Zerga Berezienak, onartzen dituena.

— 1.040/1997 Foru Agindua, abenduaren 17koa, fabrikazio zerga bereziei dagozkien 504, 505, 509, 511, 517, 524, 572 ereduak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistroan izena emateko txartelak onartzen dituena.

— 1.037/1998 Foru Agindua, abenduaren 3koa, fabrikazio zergei dagokienez 518, 519, 520, 555 eta 556 aitorten ereduak eta 506, 507, 508 eta 590 itzulketa ereduak onartzen dituena.

— 531/2000 Foru Agindua, uztailaren 11koa, luzatutako agiri laguntzaileen eta batasun barruko trafikoan jasotako agiri laguntzaileen laburpen zerrendei buruzko eredu berriak (bi kasuetan, agiri erraztuak barne) eta euskarri magnetikoak onartzen dituena.

— 1.165/2001 Foru Agindua, azaroaren 21ekoa, zerga bereziei dagozkien 504, 505, 506, 507, 508, 510, 524 551, 552, 572 eta 580 ereduak, eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga egintza juridiko dokumentatuen barruko merkataritza agirien modalitatean aitortu eta likidatzeko 30A eredu onartzen dituena. Bi artikulua ez dira indargabetzen foru agindu honetan: Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga aitortzeko 30A eredu onartzen duena (13. artikulua) eta eredu hori aurkezteko epe eta tokiak ezartzen dituena (14. artikulua).

— 1.218/2001 Foru Agindua, abenduaren 3koa, euroa moneta-sistema nazionalako moneta bakar gisa hasten denetik aurrera erabili beharreko zerga ereduak finkatzen dituena, honako eredu hauei dagokienez: 500/503, 509, 517, 518, 519, 520, 553, 554, 555, 556, 557, 558, 5960, 561, 562, 563, 564, 566, 570 eta 590.

— 1.329/2001 Foru Agindua, abenduaren 21ekoa, zerga berezien 511 eredu, bideko salmenten prozeduran tasa murriztuarekin igorritako produktuen emate orrien hileko zerrenda aurkezteko, onartzen duena.

— 220/2002 Foru Agindua, martxoaren 11koa, zerga bereziei buruzko zenbait gai arautzen dituena.

— 638/2002 Foru Agindua, ekainaren 24koa, zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergaren aitorten-likidazioa eta hornikuntza salbuetsien zerrenda aurkezteko erabiliko den 569 eredu onartzen duena.

— 1.313/2003 Foru Agindua, abenduaren 18koa, Fabrikazio Zerga Bereziei lotutako hainbat produkturen batasun barruko zirkulazioan aurretiazko informazioaren sistema ezartzen duena.

— 1.356/2004 Foru Agindua, abenduaren 13koa, ondoko xedapena aldatzen duena: Abuztuaren 27ko 885/2002 Foru Agindua, martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean xedatutakora egokitzekoan, ezarritako tasa murriztuak aplikatzeko hidrokarburo jakin batzuek eraman behar dituzten trazitzaile eta markatzaileak onartzen dituena.

— 231 bis/2005 Foru Agindua, irailaren 16koa, honako aginduak aldatzeko: Abuztuaren 20ko 640/1997 Foru Agindua, Fabrikazio Zerga Berezien ereduak onartzen dituena, otsailaren 25eko 157/1998 Foru Agindua, Elektrizitatearen gaineko Zerga Berezia aitortzeko 560 eredu onartzen duena, eta azaroaren 21eko 1.165/2001 Foru Agindua, zerga bereziei dagozkien ereduak onartzen dituena.

— 335/2006 Foru Agindua, martxoaren 29koa, likidazio aldi berean zerga tasa desberdinak aplikatzen direnean Fabrikazio Zerga Berezien aitortenak aurkezteko jarraitu beharreko arauak ezartzen dituena. Ez da indargabetzen 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoa.

— 1.090/2006 Foru Agindua, abenduaren 22koa, aitorten-likidazio batzuk bide telematikoz aurkezteko prozedurari buruzko otsailaren 25eko 165/2004 Foru Agindua aldatzen duena, 560, 561, 562, 563, 564 eta 566 ereduak dagokienez.

— 1.091/2006 Foru Agindua, abenduaren 22koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urteko aitorten-likidazioa egiteko 390, 391, 392 eredu berriak eta 390 eta 392 eredu eranskin komuna onartzen dituena, eta otsailaren 25eko 157/1998 Foru Agindua, Elektrizitatearen gaineko Zergaren 560 eredu onartzeko, aldatzen duena, 560 ereduari dagokienez.

2. Indarrrik gabe geratzen dira, baita ere, foru agindu honetan ezarritakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta data horretatik aurrera hasten diren likidazio aldietan egindako eragiketen autolikidazio eta aitorpenei aplikatuko zaie.

Donostia, 2009ko otsailaren 16a.—Peio Gonzalez Argomaniz, Ogasun eta Finantzako Departamentuko foru diputatua.

(1235) (2232)



mso-bidi-font-size:10.0pt;mso-ansi-language:EN-US;font-weight:normal'>



style='font-size:11.0pt;mso-bidi-font-size:10.0pt;font-weight:normal'>



mso-bidi-font-size:10.0pt;font-weight:normal'>

mso-bidi-font-size:10.0pt;font-weight:normal!>



mso-bidi-font-size:10.0pt;font-weight:normal!>



mso-bidi-font-size:10.0pt;font-weight:normal!>



mso-bidi-font-size:10.0pt;font-weight:normal!>





mso-bidi-font-size:10.0pt;font-weight:normal!>



mso-bidi-font-size:10.0pt;font-weight:normal!>



mso-bidi-font-size:10.0pt;font-weight:normal!>



mso-bidi-font-size:10.0pt;font-weight:normal!>



mso-bidi-font-size:10.0pt;font-weight:normal!>



mso-bidi-font-size:10.0pt;font-weight:normal!>



mso-bidi-font-size:10.0pt;font-weight:normal!>



mso-bidi-font-size:10.0pt;font-weight:normal!>



mso-bidi-font-size:10.0pt;font-weight:normal!>



mso-bidi-font-size:10.0pt;font-weight:normal'>

